

BALIO PROPOSAMENA

Berrizjolastu proiektuaren helburua da jostailuak alferrik ez galtzea eta berrerabilera sustatzea. Gaur egun, haur askoren jostailuak egoera onean egon arren zakarrontzian bukatzen dute, eta horrek plastiko asko alferrik galtzea eta kutsadura sortzea dakar. Guk arazo horri irtenbide bat eman nahi diogu, jostailuei bigarren bizitza bat emanez.

Gainera, gure ideia lagungarria da familien ekonomiarentzat ere, batez ere jostailu berriak erosteko diru askorik ez dutenentzat. Gure sistemarekin, jostailuak doan edo deskontu handi batekin lor daitezke, eta jostailuak ematen dituzten pertsonen puntuak edo sariak jasoko dituzte Juguettos dendetan erabiltzeko. Horrela, familiek dirua aurrezten dute eta, aldi berean, planeta zaintzen laguntzen dute.

Berrizjolastu berezia da, ez baitago antzeko proiekturik. Juguettos denda ezagunarekin elkarlanean arituko gara. Jendeak jostailuak han utziko ditu, eta gero gure tailerretara edo denda fisikoetara eramango ditugu. Bertan, jostailuak garbitu, konpondu eta egoeraren arabera sailkatuko dira: egoera onean daudenak saldu edo trukatu dira, eta egoera txarrean daudenak birziklatuko dira.

Gure proiektuaren balio nagusia da ingurumenarekin eta gizartearekin konprometituta egotea. Hurrei solidaritatea eta ingurumenarekiko ardura erakustea, eta familiei ohitura jasagarriak izaten laguntzea.

Gainera, segurtasuna eta kalitatea oso garrantzitsuak dira. Jostailuak berrerabili aurretik beti garbitzen eta egiaztatzen dira, eta horrek konfiantza ematen die erosleei.

Azken batean, Berrizjolastu ez da soilik jostailuen truke edo salmenta sistema bat; balio positiboen proiektu bat da. Proiektu honekin, hurrek jolastu egiten dute, familiek aurrezten dute eta planetak ere irabazten du.